

2006-12-20ko Udalbatzarra

## **5.- BIR ENZARA SAHARAKO HERRIA-REKIN SENIDETZEA.**

**Helena Santesteban Alkateak gaia azaldu du:**

**Uda honetan horko pertsona batzuk hona etortzeko alkateok gonbidapen batzuk egin dituzte eta hortik sortu zen ideia senidetzeko.**

**Udalak ez du hartzen inolako obligaziorik elkartasuneko konpromisoa baizik. Hori bi asmoekin: Sahara Herriak duen errebindikazioa mantentzeko eta dituzten beharreatik bere bizitza arintzen laguntzeko.**

**Nafarroan Elkarte bat dago laguntza publiko eta pribatuak gestionatzen dituen, horrexegatik, guk baino beharra gehiago duen jendeari laguntzeko konpromisoa da.**

**Denak ados agertuta, aho batez, ERABAKI DA:**

**1) BIR ENZARA Saharako herriarekin senidetzea.**